

GI-632: BEASAIN ETA BERGARA ARTEKO ARDATZA

## **AURRERA DOAZEN LANEI ESKER ZUMARRAGATIK URRETXU ETA LEGAZPIKO LOTUNERAINOKO ZATIAREN BI HEREN OSATU AHAL IZAN DIRA**

Argisaoko tunela (900 metro) zultzeko lanak amaitu dira eta bi hodietatik bat dagoeneko estalita dago. Urolako zubibidearen egitura (266 metro) ere amaituta dago.

Obrak erritmo onean doazenez, aurten bertan ireki ahal izango da Gipuzkoako barrualdeko eskualdeak komunikatzeko funtsezko izango den Beasin eta Bergara arteko ardatzaren beste bidezati bat.

Hurrengo zatiko lanak, Urretxu eta Antzuola artekoak, aurten hasiko dira, eta aurreikusitako jardueren artean dago Deskargako mendatean egingo den tunela. Lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Krisiaren Aurkako Planean jasota daude eta horiek burutzeko 68 milioi euroko inbertsioa egin beharko da.

*BEASAIN ETA BERGARA ARTEKO ARDATZA (DURANGO)*

Zatia: **ZUMARRAGatik URRETXU – LEGAZPIko lotunerainokoa**

Udalerriak: **Zumarraga, Urretxu, eta Legazpi**

Luzera: **2,1 kilometro**

Obraren aurrekontua: **48 milioi euro**

Kontratista: **Amenabar – Brues y Fernández aldi baterako enpresa batasuna**

Obra zuzendaritzaren aurrekontua: **2,3 milioi euro**

Obren zuzendaritza: **Euroestudios**

Egitura nagusiak: **-Argisaoko tunela (900 m)**

- **Urolako zubibidea (266 m)**

- **Urretxu-Legazpiko lotunea**

- **4 azpiko pasabide**

Beasain eta Bergara arteko korridorea egiteko lanen barruan hurrengo hilabeteetan aurrera pauso handia emango da Zumarragatik Urretxu-Legazpiko lotunerainoko zatiko obrak amaitzean. Lanak erritmo onean doaz eta dagoeneko exekuzio proiektuaren bi heren osatuta daude.

Lan horiek amaitzean, 2,1 kilometro luze den errepide berria, egun zabalik dagoen GI-632 errepidearen zatia Zumarraga ekialdean Urretxu-Legazpiko lotune berriarekin lotuko duena, hemendik hilabete batzuetara, N-I errepidea (Beasain) eta Zumarraga artean irekita dagoen Beasain-Bergara korridoreko 11 kilometroko zatiari gehituko zaio.

Gipuzkoako barrualdeko eskualdeak komunikatzeko funtsezkoa izango den Beasain eta Bergara arteko ardatza eraikitze lanen barruko hurrengo urratsa aurten bertan egingo da, laster hasiera emango baitzaie Urretxu eta Antzuola arteko hurrengo zatiko lanei, eta horien barruan sartuko da Deskargako mendatean egingo den tunela. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatu duen Krisiaren Aurkako Planean jasota dago eta lanak burutzeko 70 milioi euro inguruko inbertsioa egin beharko da.

## **ZUMARRAGATIK URRETXU-LEGAZPIKO LOTUNERAINOKO ZATIA**


Zumarragatik Urretxu-Legazpiko lotunerainoko errepide berriak inguru oso malkartsua zeharkatzen du eta ibilbidearen erdia baino gehiago tuneletik eta zubibidetik doa horregatik: Argisaoko tunela (900 m) eta Urola gaineko zubibidea (266 m) dira egitura garrantzitsuenak. Zailtasun orografiko horiek direla eta, proiektuak kostu handia du, obra zibilak 48 milioi euroko aurrekontua du, 24 milioi euro kilometro bakoitzeko.

Errepide zati hau egiteko lanak 2007ko urrian hasi ziren eta ordutik hona Argisaoko tunela zulatu da (900 metro), eskuineko hodiaren estaldura amaitu da eta ezkerrekoaren % 30a ere osatuta dago. Obraren beste egitura garrantzitsua, Urola gaineko zubibidea, bukatuta dago, azkeneko ukituak ematea eta zoladura jartzea besterik ez da falta.

Obrak bukatzeko gelditzen diren hilabete hauetan drainadura lan batzuk egingo dira, Argisaoko tuneleko segurtasuneko eta kontroleko instalazioak jarriko dira, Urretxu-Legazpiko lotunean lur-erazketa egingo da eta errepide zati berrian zoladura geruzak zabalduko dira.



## **BEASAIN –BERGARA ARDATZA (GI-632)**



### **HELBURUA:**

Beasain-Bergara ardatzak Gipuzkoa barneko ekialde-mendebalde lotura indartuko du. N-1 (Beasain) eta AP-1 (Bergara) errepide nagusiak zuzuenean lotuko ditu eta Gipuzkoako biribilgunea osatuko du, hegaldetik

**LUZERA:** 23 kilometro

**AURREKONTUA:** 300 milioi euro (estimazioa)

### **EGOERA:**

- \*Beasain (N-1) – Zumarraga (Irekita)
- \*Zumarraga – Urretxu/Legazpiko lotunea (lanean, irekiera 2010ean)
- \*Urretxu/Legazpi – Antzuola (Deskargako tunela) (lanen hasiera 2010ean)
- \*Antzuola – Bergara (AP-1) (eraikuntza proiektua idazten)